

CONSO MARTINEZ eta MARTA MORIONES liburuzainak

"Gehien betetzen gaituena jendearen poztasuna da"

Ez dira gutxi Marta Moriones eta Conso Martinezek egunerokoan egin beharreko lana: bildumak kudeatu, erabiltzaileak lagundu, beharrezkoa den giroa bermatu... Beraiei esker, jende ugari hurbiltzen da egunero Zangozako liburutegira

ZANGOZA. Aurten liburuen gaia eskuartean izaki, liburuak bizi direneko etxea bisitatzeko parada hartzea erabaki dugu Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak. Zangozak ere badu liburuak bizi direneko etxe dotorea: herriko liburutegia, hain justu ere. Bertan, milaka eta milaka liburu aurki genitzake, zain, gure zain, irakurle txikien nahiz handien, gazteen zein helduen... Hauen atzaparretan noiz eroriko zain. Liburuak eskuartean goxo-goxo hartzearekin batera, liburuei darien indar magikoa soma genezake. Eta liburu hauen guztien artean, bada bertan bizi den mamurik... Antzina, bertan bizi izan zen Vianako Printzearen mamua. Garaiko gazteluan kokatua baitago gure liburuen etxea.

Horrela ba, bazen behin, aspaldiko garaietatik Zangozako liburutegia zaintzen zuten zaldunak: Conso Martinez eta Marta Moriones zaldunak. Hauen eskuetan da, Zangozako liburutegiko magiak bizirauteko ardura. Gaur, nork bere etxean jasoko du bi zaldun hauek, liburuen etxean egiten duten lanaren sekretu ezkutuak.

Noiztik zarete liburuzainak?

Conso: Nik 29 urte daramat lanean eta Martak 2 urte. Biok lan berdina egiten dugu, baina ordutegi desberdina dugu.

Zertan datza zuen lanak?

Conso eta Marta: Gure lanak 3 zereginetan datza nagusiki:

1. Bildumaren kudeaketa (aukeraketa, eskuraketa, katalogazioa, ordenazioa, antolaketa, xahuketa eta ebaluazioa, fakturazioa)
2. Erabiltzailea laguntzeko ekintzak: informazio, maileguak, karnetak, etab.
3. Kontsultarako, irakurketarako, ikasteko... Beharrezkoa den giro atsegina ematen dena bermatzea, hitz gutxitan gizalegeko oinarritzko arauak betetzen direla ziurtatzea.

Zure eginkizunen artean, zein duzue gustukoen?

Conso eta Marta: Gehien betetzen gaituena, guk eskaintzen dugun zerbitzuen aurrean, jendeak erakusten digun poztasuna da.

Nola antolatzen dira liburutegiko liburuak?

Conso eta Marta: Liburuak azkartasunez eta erraz aurkitu ahal izateko, liburu edo ikus-entzunezko guztiek 'signatura' deitzen den kode berezi bat dute, zenbaki eta letraz osatuta dagoena. Kode hau liburu eta ikus-entzunezko guztiek dute liburu-bizkarrean itsatsita.

Liburuak kodearen arabera ordenatuta egoteaz gain, bere ezaugarriak kontutan hartuta, espazialki ere beste kokapen bat du. Horrela 3 gelatan banatzen dira: haurrentzako gelan, helduentzako gelan eta material-zuntza gelan.

Zein da liburutegitik pasatzen den eguneko pertsonen batz-batzekoa?

Conso eta Marta: Egutero liburutegitik pasatzen den erabiltzaileen batz-batzekoa 70 pertsonakoa da.

Liburuez gain, zein beste baliabide aurki daitezke liburutegian?

Conso eta Marta: Liburutegian erabiltzaileak formatu ezberdinetako materiala aurkitu ditzake: liburuak, aldizkariak, buletinak, filmak, dokumentalak, jokoak, erreferentzia-liburuak (entziklopediak, hiztegiak, atlasak, ...) CD-rom-ak, Zangoza herriari buruzko materiala...

Zein baldintza behar dira liburutegiko materiala etxera eramateko?

Conso eta Marta: Liburutegiko edozein material maileguan eraman ahal izateko, nahiko da Nafarroako Liburutegi Publikoko Sareko harpidedun izatea (berau, liburutegi bertan lortu daiteke) eta irakurleak aldi berean 3 liburu, aldizkari edota ikus-entzunezko bat eraman ditzake etxera.

Maileguan eramandako liburuak 21 egunetan izan ditzakegu, eta bi alditan berritu. Aldizkariak astebete izan ditzakegu, eta bi alditan berritu ditzakegu mailegutza ere. Ikus-entzunezkoak, berriz, astebete izan baditzakegu ere, ezin da mailegutza berritu.

Zenbat harpidedun daude Zangozako liburutegian? Nork erabiltzen du gehiago liburutegia?

Conso eta Marta: Zangozako liburutegian 1.900 harpidedun inguru ditugu erregistraturik. Liburutegira egunerokotasunean, haur eta gazte gehiago etortzen dira helduak baino batez ere ipuin-kontalaria egiten delako (gazteleraz). Bestalde, maileguan hartzen dituzten erabiltzaile gehienak helduak dira.

Zer egin daiteke, irakurtzeaz gain, liburutegian?

Conso eta Marta: Liburutegian, irakurtzeaz gain, Nafarroako Liburutegi Publikoko sareko katalogoak kontsultatu daitezke, Internet erabili daiteke eta behar izanez gero fotokopiak atera daitezke ere.

Eta azkena, eta bukatzeko, zein liburu duzue gustuko?

Conso: Nire liburu gustukoena Dominique Lapierreren La ciudad de la alegría da.

Marta: Nirea, Umberto Ecoren El nombre de la rosa da.

Eta gogora ezazue, irakurleak berak duen magiarik gabe, liburuek ez dutela bizirik, hilak leudeke. Ez ahantz beraz, Zangozako liburutegira sartu eta bertako magiaz gozatzea. Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan, eta atera dadila Zangozako plazan.

Baietz irakur txokoa irakurzalez bete!

Aurten gure irakur txokoaren arrakasta ikusita, errekorren bila abiatu ginen

Aurten, gure ikastolako inauterietako gaia Ipuin klasikoak izan da. Gu, Lehen Hezkuntzako 5. maila, zazpi antxume eta otso moxorrotu gara. Ikastolatik denetarik zegoen txanogorritxoak, Edurne Txuri eta ipotxak, Pinotxo, Alizia, berunezko soldadutxoak...

Honekin batera ipuin klasikoen erakusketa egin dugu. Bertan, etxetik ekarritako ipuinak bildu ditugu. Bertsio eta argitaletxe desberdinak zeuden erakusketan. Esate baterako, Txanogorritxoren bederatzi bertsio desberdin, Pinotxoren argitaletxe desberdineko zazpi ipuin...

Erakusketaz gain, mahai eta lau aulkiz osaturiko irakurtzeko txoko bat ere jarri dugu. Bertan, nahi duen orok, liburutegiko liburuak irakurtzeko eta honetaz gozatzeko aukera izan du.

Batzutan, DBH-koak ere ikusi ahal izan ditugu zerbait irakurtzen. 'Oso ideia ona izan da, oso ondo dago, batez ere txikientzat. DBH-ko batzuk, ni barne, txoko honetan irakurtzen aritu gara'-dio Haranek-.

Txokoaren arrakasta ikusirik eta Juul kanpaina gainean izanik eta irakasleok errekor bat gainditzea proposatu ziguten.

Ostegunean errekorren bila abiatu ginen: 'Baietz goiz osoan zehar irakur txokoa irakurzalez beteta egon' LH-ko ikasle guztiak pasa ziren txokotik, eta ipuin klasikoen erakusketako ipuinak irakurri zituzten mintzalagun bikoteekin batera. Irakasleek txandak prestatu zituzten eta dena primeran joan zen. Errekorra erraz gainditu genuen. Ez pentsa jolastorduan atsedena hartu genuenik! Ezta pentsatu ere! Hor geuden gu jo ta ke irakurtzen. Azkenean HH-koak ere bisitatu zuten erakusketa.

Gure txokoak ez zuen hotzik pasa goiz horretan!

Erakusketa eta txokoaren inguruko iritziak eskatu ditugu eta hauek dira iritzi batzuk:

LH1-koek hau esan ditute: 'gustora egon gara, irakurtzen gustora aritzen gara'

LH2-koek gustoko dute irakurtzea baino batzuk futbola nahiago. Badirudi baten bat liburua irakurtzen aspertu zela.

'Liburu interesgarriak azaltzen direlako eta baita ere, zure iritzia eman dezakezulako' zioten LH3-koek.

LH4-koak ere gustora aritu direla ematen du. Batetik, liburu berriak ezagutzen dituztelako, baita hitz berriak ikasten dituztelako ere. Horrez gain, euskara liburuak gustoko dituzte, irakurtzea ona delako eta ipuin mota ezberdinak egoten direlako. Egindako ekintza hauekin eta beste hainbatekin, gure irakasleak, guk liburuak maitatu ditzagun saiatzen dira. Guzti honengatik, eskerrik asko irakasle guztioi!